

Euskal Autonomia Erkidegoan duen merkatu-posizioa sendotu du, **Etxe, Ehorzketa eta Bizi Arrisku** adarretan.

## **% 14,1 hazi da Kutxabank Aseguruen poliza berrien ekoizpena**

- **Prima berriak % 65 hazi dira Etxe, % 54 Bizi eta % 45 Ehorzketa arloetan**
- **Nabarmenezkoa da autonomoentzako Osasun Laguntza aseguru, salmentak % 71 handitu baititu**

**2021eko abuztuaren 5a.** Kutxabank Aseguruek urteko lehen sei hilabeteetan bere merkaturatze-jardueran izaten ari den bilakaera hobezina mantendu du, bai polizen eta bai primen **ekoizpen berriaren hazkunde** garrantzitsuarekin.

Aseguru-jardueraren errepikapena ekitaldiko lehen seihilekoan **71.900 poliza berri** merkaturatzean gauzatu da, hau da, **% 14,1**eko aurrerapena aurreko urtearekin alderatuta.

Negozio berriaren hazkundera aseguru-katalogoko produktu guztietan ikus daiteke, baina bereziki aipagarria da **Etxe, Bizi edo Ehorzketa** arloetan, **% 65, % 54 eta % 45**eko igoerekin, hurrenez hurren.

Bereziki aipagarria izan da **Osasun Laguntzako** aseguruaren hobekuntza nabarmena; izan ere, horrelako polizen salmenta **% 92** hazi da 2020ko aldi berarekin alderatuta. Nabarmenezkoa da produktu horrek langile **autonomoen** segmentuan izan duen harrera, krisiaren eraginak gehien kaltetu dituenetako bat izanik. Bezeroen profil horretako salmentak **% 71** hazi dira, sektoreak izan duen gorakada (**% 11**) baino askoz handiagoa.

Kutxabank Aseguruaren polizen stocka **931.000** gorakoa da. Datuen arabera, Kutxabank Aseguruak **aseguru-sektorearen buruan dago EAEn**, eta bertan, **negozio-bolumenaren arabera, lider izaten jarraitzen du Etxe eta Bizi Arrisku arloetan** (aurrezki-aseguruak alde batera utzita), baita **Ehorzketa** arloan negozio berriko primetan ere.

Kutxabank Aseguruek bigarren urtez parte hartu du *'Arriskua eta Ni'* (El Riesgo y Yo) heziketa-programan, eta konpainiako 18 boluntariok eskolak eman dizkiete Euskadin eta Andaluzian bigarren hezkuntzako 200 ikasle ingururi.